

Gasteiz. Bibat museoa. "Denboraren materiala"

Brontze garaiko zeramikak. Iruñako Dama. T ' ienkiu jokoak. Zaldizko fibulak. Idazkunak. Veleia, sakabanatuta. Edukiontzari dagokiona koordinatuko dut. Materiala denbora da. Esaldia Patxi Mangado arkitektoarena da. Berak definitu du, inork baino hobeto, Aiztogile kaleko eraikin biko berria, Bibat museoa.

Altxor kutxa itxi eta mutua izango da kanpotik; baina iradokitzaile eta magikoa barrutik. Denbora da, beraz, Bibaten material oinarritzkoa. Ezin dugu ahaztu ginena garela, eta izan ginena izango garela.

Eraikin berriak arabarrak direna erakutsiko duela ez da dudarik. Bibaten barruan biltzen dira Karten Museoko eta Arkeologia Museoko funtsak, eta horiek dira Arabako jendearen bilduma estimatuenak, esanguratsuenak, iraganaren ispilua. Eta biak non eta Gasteizko erdigunean elkartzea, gainera, hiribururako pizgarria izango dela uste dute bertako agintariek.

Bat-egite hori baita, finean, kulturgune berriaren izaera modernoena. Eta lan gehien eman duena. Patxi Mangadok lortu du brontzezko egitura berez gogorra inguruan ondo kokatzea, barrualdera sartzen baita sarrerako plaza, eta XVI. mendeko Bendañako jauregiak ez duelako galdu aitzinalderik. Barruan ere argilunak dira alderdi estetikorik azpimarragarriena.

Arkitektoak, tximinia zeharrarargietatik sartzen den argiaren bidez, ia kobazuloaren giroa sortu du eraikin barruan, eta helburu nagusia, arkitekturak eta barruko edukiak batzea, ederki lortu duela esan daiteke.

Arkeologia eta kartak

Arkeologia museoak hiru solairutan banatu ditu ikusgai jarri dituen 1.500 piezak. Lehenengo solairuan metodo arkeologikoa ezagutzeko espazio bat dago. Indusketetan arkeologoek nola lan egiten duten, zer aurkitzen duten eta nola aztertu eta interpretatzen duten. Hor ikus daitezke Arabako aldi zaharrenetako piezak eta Brontze Arora artekoak.

Bigarren solairuan, Burdin Aroan izaniko bilakaera azaltzen da. La Hoyako museoak protagonismo berezia du, eta baita Iruñako zaldizkoak ere.

Hirugarren solairuan erromatarren eta Erdi Aroko garaia da. Zeramika eta beirazko objektuak, metalezko tresnak, txanponak gordetzen dira. Baita Iruñako Dama ere.

Karta Museoak karten bilakaerari buruzko bidaia historikoa, teknikoa eta garaikakoa eskaintzen du. Bendaña jauregiaren patio inguruan birkokatutako geletan 250 karta inguru jarri dituzte, XV. mendetik gaur arte joko horren industriak izan duen bilakaeraren erakusgarri. Behean, kartak inprimatzeko teknikak azaltzen dira.

Lehen solairuan, Probentzako edo Rhin garaiko paper orri alemanak ikus daitezke. Halaber, kartak fabrikatzeko tekniken bilakaera.

Bigarrenean, gaien arabeko sailkapena: geografikoa, heraldikoa, historikoa...

Brontze garaiko zeramikak.

Brontze Aroa oso ondo irudikatuta dago La Hoyako (Bastida) aztarnategian. Gure aroa hasi baino 500 urte lehenagoko biztanle zeltiberiarren eredu berbera zuten biztanle hauek, hirigintza, ekonomia zein gizarte arloetako garapenari dagokionez. Araban finkatu ziren karistiar, barduliar, autrigoi eta beroi tribuen kasua da.

Iruñako Dama.

1845. urtean aurkitu zen Iruña-Okan, eta Arabako pieza arkeologikorik esanguratsuenetakoa da. Emakume baten irudia da, eta marmol zuriko eskultura baten parte bat da, bururik gabe eta hankak eta esku zatiak falta zituela aurkitu baitzuten Veleiako harresietatik gertu. Adituek uste dute I. mendeko enperatriz baten irudikapena dela, Liviarena edo Agripinarena.

T ' ienkiu jokia.

Karten lehenago aztarnak Txinakoak dira. X. mendekoak. Gasteizko Bibat museoan XIX. mendeko karta jokia gordetzen da.

Zaldizko fibulak.

Elite gerlariei buruzko irudi ederrak gorde ditu museoak. Erromatarren aurreko garaietan, zaldiak gurtzen hasi ziren bertakoak. Horren erakusgarri, apaingarrietan eta harrietan agertzen diren irudiak. Zaldunek elite mugatua osatu zuten, eta teknika militarra deigarri gertatu zitzaien orduko historialariei.

Idazkunak.

Aurkitu diren idazkunak ia beti botozkoak dira, hau da, jainko-jainkosei egindako eskaintzak. Bertan, jainkoaren izenak eta eskaintza egin duenaren izena agertzen dira. Araban aurkitutakoen artean, batez ere erromatarren jainkoak agertzen dira, baina baita bertako jainkoak ere. Hileta idazkun batzuk ere agertu dira, hildakoaren izenarekin eta eskaintzaileenarekin . Iruña-Okako aztarnategiko aspaldiko aurkikuntzak baino ez dituzte erakutsi Arkeologia Museoan, Arabako beste indusketetako piezen maila berean.

Veleia, sakabanatuta

Iruña-Okako aztarnategiaren presentziaren nondik norakoa izan da Bibat museoaren irekiera aurreko zalantzetako bat. Veleiak protagonismo berezia izango ote zuen arkeologia museo berrian, ala gainontzeko aztarnategietako piezekin batera erakutsiko zen han agertutakoa. Zalantza irekierarekin batera argitu da: Iruña-Oka gainontzeko beste indusketen mailan geratu da

erakusketan. Are, La Hoyako aztarnategiak berak garrantzia handiagoa hartu duela esan daiteke, bigarren solairuan paratu dioten bideo interaktiboaren bidez.

2006an grafitoen aurkikuntzei buruzko berriak hasi zirenean, museoaren proiektu berria martxan zen. Ordurako zalantzak baziren ostraken benetakotasunari buruz, baina garaiko kultur diputatu Federico Berastegik ez zuen zalantzarik izan iragartzeko Eliseo Gilek aurkeztutako grafitoek protagonismo berezia izango zutela museoan.

Lorena Lopez de Lacalle Arabako egungo Kultura diputatuak joan den hilean baieztatu zuen museoaren teknikari arduradun Amelia Baldeonek aurreikusia zuela grafitoak erakustea. Halaber, bideo bat prestatzen ari zela, hieroglifikoak erakusten dituen pedagogo egiptoarraren lanean oinarrituta, eta erromatarren garaiko erakusketaren proiektuaren arduraduna Eliseo Gil izango zela.

Asmo horiek guztiak Kultura diputatuak berak geldiarazi zituen. Ondorioz, Bibat berrian ez dago Iruña-Okako indusketetako piezen inguruko trataera berezirik, eta agertzen den ondarea, XX. mendearen erdialdean egindako kanpainetakoak denak, gainontzeko aztarnategietako lanekin batera agertzen dira hainbat erakusleihotan.

Baldeon eta Gil prestatzen ari omen ziren bideoaren arrastorik ez, beraz. Idazkun, hieroglifiko edo ostraken berririk ez Bibat berrian.

Itziar Ruiz de Erentxun.

Bibateko zuzendaria

Edukiontzari dagokiona koordinatuko dut.

Karten mapako zuzendaria zen harik eta, Amelia Baldeonek Veleiako aferan izaniko papera zela eta, Kultura arduradunak museo berriko zuzendari izendatzea erabaki zuen arte. Karten Museoaren erakargarritasuna azpimarratu du, eta eraikina bera. Datorrenari esango nioke sartu baino lehen begiratzeko plaza berri honi, goatzeko.

Nola hartu zenuen izendapenaren berria?

Ustekabea izan zen erabat. Egun batez, Ondasun zerbitzuko buruak hots egin zidan bere bulegora, eta orduan jakinarazi zidan. Karten Museoan bi urte daramatzat, horko teknikari arduraduna nintzen, eta erakusketa berria prestatzen ari nintzen. Bagenekien, prentsaren bidez, zer gertatzen ari zen arkeologia museoan, baina besterik ez.

Eta zuzendari izendatu zaituzte nahiz eta ez duzun denborarik izan ezer prestatzeko. Erakusketa ere ez da zure ardura izan, ezta?

Ez, hiru aste baino ez daramatzat. Baina esan behar da nire lana izango dela edukiontzari dagokiona kudeatu eta koordinatzea, edukia bera baino gehiago. Horretarako, arkeologia museoak baditu bere teknikariak, ondarearen zuzendaritzarekin koordinatuta lan egingo dutenak.

Bi museoen arteko harremana ona dela iruditzen zaizu?

Bi eraikinak erabat desberdinak dira, garbi dago. Berria eraikin garaikidea da, eta bestea Pizkundekoa, baina uste dut Patxi Mangadok lortu duela

arkitektura berria Karten Museoarekin ez ezik inguruarekin ere ondo uztartzea.

Eta barruan dagoenak badu jarraipenik?

Arkeologia museoko ibilbidea kronologikoa da, eta Erdi Aroan amaitzen da, eta Karten Museoa hain zuzen ere orduan hasi zen, Erdi Aroan. Horregatik, nik uste dut kronologiaren bidez bi bildumek bat egiten dutela elkarrekin.

Iruña-Okako aztarnategiko pieza gutxi dago identifikatuta. Zergatik?

Ez dago pieza gutxi, baina bere garaian erabaki zen bilduma kronologikoki antolatu beharrean, gaika antolatzea. Hau da, etxeak edo termak nolakoak ziren, idazkerak, hilobietako piezak... horregatik ez daude denak elkarrekin.

Alberto Barandiaran.